

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2025eko MARTXOAREN 31

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, martxoaren hogeita hamaikan, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025ko martxoaren 25ean afixatua izan zen eta 2025eko martxoaren 25ean posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	15	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLCOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k): /

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Tokiko zerga tasen finkatzea 2025erako
- Larrazkena zahar etxeko obretarako erresalbuak egiteko erabakia
- 2025eko aurrekontu nagusiaren bozkatzea
- Herri-kanpalekuko 2025eko aurrekontuaren bozkatzea
- Errepideen, Sareen eta Antolamenduaren Herriarteko Zerbitzuari kidetzea
- Errepide obren egiteko eskaera-talde baten osatzea
- Bide zor baten onartzea kitorik hodi elektriko baten iragateko
- Enedis enpresarekin egin bide zor hitzarmenaren onartzea
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko otsailaren 19ko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2025-11. DELIBEROA - TOKIKO ZUZENeko ZERGA TASEN FINKATZEA 2025erako – 7.2. NOMENKLATURA

Jaun auzapezak aurkeztu du 1259 egoera. Honek barne hartzen ditu aurreikusi oinarriak, aurreikusi erreferentziazko produktuak, ordainsari laguntzak eta zerga erreformen oreka mekanismoak.

Herriko Kontseiluak,

*Zergen Kode Nagusiko 1636 B sexies - 1636 B undecies eta 1636 A artikuluen arabera,
2025eko MARTXOAREN 31ko bilduma*

Deliberatu ondoan,

ONARTU du 2025erako herriko tasak honela finkatzea:

- jabego eraikien gaineko lur zerga: % 30.17
- Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur Zerga: % 39.53
- bizitegi zerga: % 15.79

ARDURA eman dio jaun auzapezari

- erabaki hori prefeturako zerbitzuei jakinarazteko
- Finantza Publikoen Departamenduko Zuzendaritzari 1259 egoera osaturik transmititzeko, erabaki honen kopia batekin.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

2- 2024-23. DELIBEROA - LARRAZKENA ZAHAR ETXEKO OBRETARAKO ERRESALBUAK EGITEKO ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du obra handiak egitekoak direla zahar etxean (handitzea eta 40 bainugelen berritzea).

Horretarako, obra horiek sortu arriskuak estaltzeko, jaun auzapezak proposatu du erresalbuak egitea.

Jaun auzapezak oroitarazi du heldu diren urteetan mantentze obra handiak egin beharko direla.

Oroitarazi du zenbatekoa urtero finkatzen dela. 2025erako, proposatu du 42 000 €-ko erresalbua sartzea aurrekontuan.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ERABAKI** du 2025erako 42 000 €-ko erresalbua egitea zahar etxerako.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

3- 2025-13. DELIBEROA - 2025eko AURREKONTU NAGUSIAREN BOZKATZEA – 7.1. NOMENKLATURA

Biltzar erabakitzailea bildu da Antton CURUTCHARRY jauna mahaiburu zela,

BOZKATU ditu 2025eko jatorrizko aurrekontuko proposamen berriak:

INBESTIMENDUA	
GASTUAK	1 945 181.95 €
IRABAZIAK	2 215 203.95 €
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	2 468 469.19 €
IRABAZIAK	2 468 469.19 €
Oroitarazteko, aurrekontua orotara:	
INBESTIMENDUA	
GASTUAK	2 215 203.95 € (270 022 € Betetzekoak diren gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	2 215 203.95 € (0.00€ Betetzekoak diren gaineratikoak barne)

2025eko MARTXOAREN 31ko bilduma

FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	2 468 469.19 € (0.00€ Betetzekoak diren gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	2 468 469.19 € (0.00€ Betetzekoak diren gaineratikoak barne)

Elementu horiek kontuan harturik, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU** du Aurrekontu Nagusiko 2025eko Jatorrizko Aurrekontua

LKKOko L5217-10-6 artikuluaaren arabera, jaun auzapezari baimena eman dio kreditu mugimenduen egiteko kapituluz kapitulu, langileen gastuei doazkien kredituetarako salbu:

- funtzionamendu saileko gastu errealeen zenbatekoaren % 7,5;
- inbestimendu saileko gastu errealeen zenbatekoaren % 7,5;

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4-2025-14. DELIBEROA – HERRI KANPALEKUAREN 2025eko AURREKONTUA BOZKATZEA – 7.1 NOMENKLATURA

Biltzar erabakitzailea bildu da Antton CURUTCHARRY jauna mahaiburu zela,

BOZKATU ditu 2025eko jatorrizko aurrekontuko proposamen berriak:

INBESTIMENDUA	
GASTUAK	8 042.55 €
IRABAZIAK	29 349.55 €
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	144 994.87 €
IRABAZIAK	144 994.87 €
Oroitarazteko, aurrekontua orotara:	
INBESTIMENDUA	
GASTUAK	29 349.55 € (21 307.00 € Betetzekoak diren gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	29 349.55 € (0.00€ Betetzekoak diren gaineratikoak barne)
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	144 994.87 € (0.00€ Betetzekoak diren gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	144 994.87 € (0.00€ Betetzekoak diren gaineratikoak barne)

Elementu horiek kontuan harturik, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU** du herri-kanpalekuko 2025eko jatorrizko aurrekontua

LKKOko L5217-10-6 artikuluaaren arabera, jaun auzapezari baimena eman dio kreditu mugimenduen egiteko kapituluz kapitulu, langileen gastuei doazkien kredituetarako salbu:

2025eko MARTXOAREN 31ko bilduma

- funtzionamendu saileko gastu errealeen zenbatekoaren % 7,5;
- inbestimendu saileko gastu errealeen zenbatekoaren % 7,5;

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 15
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

5-2025-15. DELIBEROA – ERREPIDEEN, SAREEN ETA ANTOLAMENDUAREN HERRIARTEKO ZERBITZUARI KIDETZEA– 9.2 NOMENKLATURA

Oroitarazi da Pirinio Atlantikoetako elkargoek beren beharrak eta ahalak batu dituztela tokiko aditu, laguntza eta aholku zerbitzuak ukaiteko, eta denbora partekatuan erabiltzen dituztela.

Horrela, Herriarteko Administrazio Zerbitzua plantan ezarri da. Honek lurraldeko aginpideak eta haien lankideak laguntzen ditu lekuko administrazio arazoetan; Ondarearen eta Arkitekturaren Herriarteko Zerbitzuak manera berean parte hartzen du etxegintzan; Herriarteko Informatika Zerbitzuari esker elkargoak informatizatu daitezke eta software profesionalak erabil ditzakete baldintza tekniko eta ekonomiko onetan; Herriarteko Lurraldeak eta Hirigintza Zerbitzuak elkargoaren beharrei ihardesten die, eta Herriarteko Bide eta Sare Zerbitzuak kide diren elkargoei eskaintzen die gunee publikoen, bideen, arte obren, berdeguneen eta bestelako sareen antolaketaarako laguntza.

Zerbitzu horiek Tokiko Kudeaketaren Agentzia Publikoak ditu kudeatzen

Kide izateko baldintzak malguak dira zerbitzu guziendako: elkargoak Agentziaren kide egiten dira haien egitura deliberatzailearen erabakiaren bidez, eta deliberazio hori Agentziaren estatutuen eta hautatu zerbitzuen esku hartze araubidearen onartzeko balio du.

Simetrikoki, elkargoak zerbitzu batetik edo Agentziatik beren baitarik ateratzen ahal dira eta deliberazio baten bidez; erabakia ondoko urteko urtarilaren 1etik goiti indarrean izanen da.

Herriko Kontseiluak, deliberatu ondoan,

- **ERABAKI du** Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoari kidetzea Errepideen, Sareen eta Antolamenduaren Herriarteko Zerbitzurako.
- **ONARTU ditu**, ondorioz, Agentziaren estatutuak eta hautatu zerbitzuaren esku hartze araudia.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 15
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

6- 2025-16 DELIBEROA - ERREPIDE OBREN EGITEKO ESKAERA-TALDE BATEN OSATZEA – ESKAERA TALDEAREN KIDEEEN ARTEAN HITZARMEN BAT FINKATZEA – 1.4 NOMENKLATURA

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio elkargoak kontratu eskuratze bat egin behar duela errepide obren egiteko.

Bankako, Aldudeko, Urepeleko herriek eta Baigorriko Ibarreko Sindikatuak ere behar dute merkatu publiko kontsulta bat egin gai horri buruz. Jakinarazi du egokia litzatekeela elkarrekin hautatzea zerbitzua bermatuko duen hornitzailea, bereziki eskala-ekonomia baten ukaiteko.

Esplikatu du Eskaera Publikoaren Kodearen L. 2113-6-L.2113-8 artikuluen arabera, “eskaera-talde” prozedurak horrelako erosketa bat egiteko parada emanen lukeela.

Auzapezak jakinarazi du prozedura horren kariatara, eskaera taldea osatzen duen hitzarmena plantan ezarri behar dela; honek funtzionamendu moldeak zehazten ditu bereziki. Atxikirik den hitzarmen proiektua aurkeztu du puntu nagusiak azpimarratuz:

- kontratu bat edo batzuk izenpetuko eta jakinaraziko litzuke koordinatzaileak eta kide bakoitzak merkatu publikoa beteko luke doakion zatirako.

- horrelako talde baterako Eskaintza Publikoen Batzorde bat (EPB) osatu behar da, eta koordinatzailearena izan daiteke

Biltzarrak, auzapezaren aurkezpena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

- **ONARTU du:** atxikirik den hitzarmenak eskaera-taldea osatzen duela Bankako, Aldudeko eta Urepeleko herrien eta Baigorriko Ibarreko Sindikatuaren artean errepide obrak eginen dituen hornitzailearen hautatzeko.
- **DELIBERATU du** BAIGORRIKO herria taldearen koordinatzaile izanen dela;
- **ZEHAZTU du:** Eskaintza Publikoen Batzordea taldeko kide bakoitzaren Eskaintza Publikoen Batzordeko ordezkari batez osatua izanen dela, eta horretarako ordezkaria hautatzeko bozak egin ditu Eskaintza Publikoen Batzordeko kide titularren artean.

bozkatu da ordezkari titularra izendatzeko.

Bozak kontatu ondoan, hona emaitzak:

- Bozka paper kopurua: 15
bozka paper zuriak edo baliogabeak: 0
bozkatu dutenen kopurua: 15

Ukan ditu:

- CURUTCHARRY Antton jaunak: 15
CURUTCHARRY Antton jaunak lortu du gehiengoa eta titular izendatu da

bozkatu da ordezkariaren ordezkoa izendatzeko.

Bozak kontatu ondoan, hona emaitzak:

- Bozka paper kopurua: 15
bozka paper zuriak edo baliogabeak: 0
bozkatu dutenen kopurua: 15

Ukan ditu:

- CLAUZEL Sébastien jaunak: 15 boz
CLAUZEL Sébastien jaunak gehiengoa lortu du eta ordezkari izendatu da

- **BAIMENA eman dio:** Auzapezari hitzarmena izenpetzeko eta honen gauatzeko beharrezko desmarxa guziak betetzeko.
- **BAIMENA eman dio** koordinatzailearen exekutiboari hitzarmen oinarri-emailea izenpetzeko Bankako, Aldudeko eta Urepeleko herrien eta Baigorriko Ibarreko Sindikatuaren izenean, gutieneko zenbatekoa 0€-koa da, eta taldeko kide bakoitzak beretzat beteko du hitzarmena.
Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

7-2025-17. DELIBEROA - BIDE ZOR BATEN ONARTZEA KITORIK HODI ELEKTRIKO BATEN IRAGATEKO (AB 381 ETA 383 LURSAILAK) – 9.1 NOMENKLATURA

Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeak egin obren karietara, elektrika linea bat lurperatu da AB 381 eta AB 383 lursailen zolan (herriko jabego pribatuak).

2025eko MARTXOAREN 31ko bilduma

Herriko Kontseiluak, auzapezak proposaturik, eta deliberatu ondoan:

- **ONARTU du** AB 381 eta AB 383 lursailek bide zor bat ukaitea kitorik, gorago aipatu elektrika handik iragateko;
- **ZEHAZTU du** bide zor hori formalizatuko dela agiri administratibo baten bidez herriaren eta Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldearen artean.
- **BAIMENA eman dio** auzapezari gai horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

8- 2025-18. DELIBEROA - ENEDIS ENPRESAREKIN EGIN BIDE ZOR HITZARMENAREN ONARTZEA (AB 383 LURSAILA) – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak irakurri du AB 383 lursailari doakion bide zor hitzarmena eta atxikirik den planoa.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU du** AB 383 lursailak bide zor bat ukan dezan kitorik lurpeko hodi bat handik iragateko 2 metroko luzeran guti gora behera
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari atxikirik hitzarmena izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

Gai orotarik

!

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLCOMENDY Betti jauna

Bilkuran hartu deliberoak 11tik 18ra zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>